

ESCUELA INFANTIL PAQUITA ANSA HAUR ESKOLA
2024-2025 IKASTURTEA

MATRIKULA

Matrikula egitea: 2024ko ekainaren 6tik 12ra

Onartutako haurren familiek posta elektronikoz jasoko dituzte matrikula gauzatzeko beharrezko argibideak.

Finkaturiko epean egiten ez diren matrikulek postuari uko egitea izanen dute ondorio, eta postua berriz ere esleitu beharko da, itxaron zerrendan ezarritako hurrenkeraren arabera.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako txartelaren edo kartilaren.
- Ordaindu beharreko fidantzari dagokionez, ez da beharrezkoa izanen egiaztagiria aurkeztea, ofizioz egiaztatuko da. Ordainketa egiteko behar den informazioa matrikularen formularioan dago..
- [Gurasoen edo legezko tutoreen 2023ko PFEZren aitopenearen](#). Aitorpena egitera behartuta ez badaude, hori egiaztatzen duten agiri ofizialak eta/edo beste errenta edo diru-sarrera batzuk jaso izana justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, edo, azken buruan, 2023. urteari dagozkion [errenta eta diru-sarreraren zinpeko adierazpena](#) eta/edo Zizur Nagusiko Udalak 2023. urteko familiaren diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak. Dokumentu honen aurkezpena 2024ko ekainaren 27a arte atzeratzen ahalko da.
- Titularra nor den erakusten duen agiriaren eta ordainagiriak helbideratzeko kontu-zenbakia.
- Hala badagokio, haurra behar bezala artatzeko behar den osasun-informazioaren.
- Hala badagokio, familia-unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioaren, 2024ko urtarilaren 1etik aurrera izandako jaiotzengatik.

TARIFAK

Apirilaren 30eko 49/2024 Foru Aginduan ezarritako tarifak aplikatuko dira.

1) Per capita errentaren kalkulua:

- Familia-unitatearen errenta gisa hartuko da honako hauen batura: batetik, PFEZaren aitorpena aurkeztu behar duten familia-unitateko kide konputagarri guztien errenta-aitorpenean agertzen diren likidazio-oinarri guztiak (550. Laukitxo).
- Per capita errenta kalkulatzeko, familia-unitatearen errenta zati familia-unitatea osatzen duten pertsonen kopurua egingen da, ["Familia-unitatearen kontzeptua"](#) atalean ezarritakoaren arabera.
- Onarpen baremoaren ondorioetarako per capita errenta kalkulatzeko, familia unitatearen errenta izanen da errenta aitopeneko likidazio oinarriaren edo oinarrien guztizkoa. Familia unitatearen per capita errenta honela kalkulatu da: 2023. urteko zerga-ekitaldiari dagokion guztizko likidazio oinarria zati familia unitatearen kide kopurua 2023ko abenduaren 31n (aitortzailea, ezkontidea edo bikotekide egonkorra eta kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak).

2) Tarifak:

Hilean ezarritako gehieneko tarifek familia-unitatea osatzen duten pertsonen per capita errentaren arabeko murrizketak izanen dituzte, eta familiak ordaindu beharreko tarifa erantsitako taularen arabera zehaztuko da.

Familia modalitatea	Familia orokorrak			Guraso bakarreko familiak		
Jardunaldi osoa	Eskolatzea	Jantokia	Eskolatzea + Jantokia	Eskolatzea	Jantokia	Eskolatzea + Jantokia
15.000 €-tik gora	0 €	95 €	95 €	0 €	84 €	84 €
12.400,01etik 15.000 €-ra	0 €	95 €	95 €	0 €	84 €	84 €
10.700,01etik 12.400 €-ra	0 €	95 €	95 €	0 €	84 €	84 €
9.300,01etik 10.700 €-ra	0 €	95 €	95 €	0 €	84 €	84 €
7.980,01etik 9.300 €-ra	0 €	84 €	84 €	0 €	66 €	66 €
6.650,01etik 7.980 €-ra	0 €	84 €	84 €	0 €	66 €	66 €
5.500,01etik 6.650 €-ra	0 €	66 €	66 €	0 €	52 €	52 €
4.500,01etik 5.500 €-ra	0 €	58 €	58 €	0 €	42 €	42 €
3.350,01etik 4.500 €-ra	0 €	56 €	56 €	0 €	32 €	32 €
3.350 € edo hortik behera	0 €	52 €	52 €	0 €	25 €	25 €

- Ezartzen den epean 2023ko diru-sarreraren aitorpena edo egiaztagiriak aurkezten ez dituztenei, gehieneko kuota aplikatuko zaie ikasturte osoan.
- Kuotaren salbuespena baloratuko da arrisku psikosozialeko faktoreen eraginpean dauden eta, halaber, garapenean atzerapena duten haurren kasuan, betiere ekonomiaren eta familiaren egoeraren arabera.
- Salbuespen hori onartzeko, Zizur Nagusiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako taldearen eta Eskubide Sozialetako Departamentuko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren edo, hala badagokio, NHEBZko Arreta Goiztiarreko Taldearen balorazioak eta aldeko txostenak beharko dira.
- Bi anai-arrebak edo gehiagok jantokia erabiltzen dutenean, lehenengoak errentaren arabera dagokion tarifa ordainduko du, eta hurrengoek gutxieneko tarifa.
- Zizur Nagusiko Udalak derrigorrezko fidantza bat ezarriko du ikasturte bakoitzean, matrikulazioan ordaindu beharrekoa eta ikasturtea amaitzean itzuliko dena.

Familia-unitatearen kontzeptua:

- Onarpenari begira, familia unitatearen kontzeptua da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikulua arautzen duena.

“ 71. artikulua. Familia unitatearen kontzeptua.

1. Zerga honi dagokionez, ondokoak dira familia unitateak:

a) Legez banandurik ez dauden ezkontideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Berariazko legeen arabera bikote egonkor bateko kideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

c) Legezko banantzearen kasuetan edo, ezkontzaren bidezko loturarik edo bikote egonkorrik ez dagoenean, aita edo ama eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

2. Ezin da aldi berean bi familia unitatetako kidea izan.

3. Familia unitateko kideak zehazteko, urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoera aintzat hartuko da, familia unitateko kideren bat urtean hil ezean; izan ere, kasu horretan familia unitateko gainerako kideek zergak, hildakoaren errentak barne, batera ordaintzea aukeratu ahal izango dute.

Aukera hori ez da bidezkoa izango, ezkontideetako bat hil, eta urtea amaitu baino lehen alarguna berrir ezkontzen denean”

- Per capita errenta eta, beraz, aplikatu beharreko tarifa kalkulatzeko, familia-unitatea osatzen duten pertsonatzat hartuko dira 2024ko urtarrilaren 1etik ikasturtea hasi arte jaiotako haurrak ere.
- Harreran dauden adingabeen kasuan, harrerako familiari aplikatuko zaio aurreko puntuetan xedatu dena.
- Inguruabar horiek guztiak behar bezala justifikatu beharko dira erakunde ofizialek emandako eta indarrean indarreko dauden agirien bidez.
- Matrikula egin ondoren, ez dira aldaketak kontuan hartuko, guraso bakarreko familiaren egiaztapena izan ezik, baldin eta matrikula egin ondoren eta ikasturtea hasi arte gertatzen bada, betiere egoera hori behar bezala egiaztatzen bada.
- Era berean, familia-unitatearen diru-sarrerek beherakada larria izan badute 2024an, ikasturtea hasi arte, errentak jasotzen dituen familia-unitateko kideren bat hil delako, egoera hori jaso ahalko da, dagozkion egiaztigiriak erantsita.